



GB

GRAND BOT – PROTECT OUR FUTURE

1- BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure balorezko proposamenaren funtsezko onurak hauek dira.

Lehena **etxeko zaintza erraztea da**. "GRANDBOT"-ek pertsona nagusiak haien etxean ahalik eta modu independente eta seguruenean bizitzen jarraitzeko aukera ematen du, familiakoei lasaitasuna emanez eta zaintza profesional bat eskainiz. Gero, **zaintzaileentzako laguntza** egoitzetan ere oso erabilgarria izan daiteke, lan karga murriztu eta zaintzaileen denbora modu beste gauza garrantzitsuago batzuetan erabiltzea lortuz, arreta osoa emanez. Gainera, **kostu eraginkorra ere badago**, egoitzetako edo kanpoko zaintzaren kostuak murrizten ditu, edozein familiarentzako eskuragarri eginez. **Laguntza artifiziala eta teknologia ere** erabiltzaileen beharretara egokitzen dira, ohiturak ikasiz eta zainketen pertsonalizazioa hobetuz. Azkenik, **segurtasun eta alertak** larrialdi egoeretan berehalako erantzuna eta familiako kideei jakinarazpenak bidaltzeko aukera ematen dute, lasaitasuna eta erantzun azkarra lortuz.



Baina, norentzat da? Produktuaren lehen bezeroak **egoitzak** izango ziren. Langileen lan-karga arintzeko eta egoiliarren ongizatea hobetzeko. Gero, noski, **familiak eta senitartekoak** izango genituzke. Guraso edo aiton-amonak etxean zaindu nahi dituztenak, lan-errutinak eta familia bizitza uztartu nahi dituztenak. Gainera, pertsona nagusiak daude ere. Modu autonomo eta duin batean bizi nahi dutenak, teknologia laguntzailearen bidez. Azkenik, helburu nagusia daukagu, **pertsona nagusien ongizatea eta zaintza hobetzea**, teknologia baliatuz erabateko zaintza integrala eskaintzea eta zaintzaile nahiz familiakoen eguneroko bizitza erraztea.